

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA

IRAILA 2020 / 51. ZK.

Nabarmentzekoak...

ENPLEGU PLANA

▶ LANAURREKO TAILERRAK

- Erakundeen eremuan esku-hartzeak antolatzeko laguntza
- Oinarrizko lanak mintegi eta lorazaintza-zentruetan

▶ PROFESIONALITASUN- ZIURTAGIRIAK

- Eraikin eta lokaletan gainazalak eta altzariak garbitzea

HAURTZAROA ETA FAMILIA

▶ LUDOTEKAK

▶ MASKARA ERAMATEKO ZURE GERRIKO POLTSA NAHI AL DUZU?

▶ LIBURUEN MAILEGU ZERBITZUA GURASOENTZAT

▶ EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA

BESTE ZERBITZU ETA JARDUERAK

- ▶ HELDUENTZAKO OINARRIZKO FORMAKUNTZA
- ▶ ATZERRITARRENTZAKO GAZTELANIA
- ▶ PODOLOGIA ZERBITZUA
- ▶ DOAKO AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA
- ▶ KONTSUAMOARI BURUZKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA
- ▶ ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ZURE INTERESEKOA IZAN DAITEKE

▶ MENDEKOTASUNAREN BALORAZIOA

ZERBITZU ETA BALIABIDE GIDA

- Aranguren Ibarreko Udaleko Gizarte Zerbitzuak

NORMALTASUN BERRIA

- PCR-a egiteko eskatu dizute

Aranguren Ibarreko Udala da bertako Gizarte Zerbitzuen arduraduna

Udalerriko bizilagunei hurbileko arreta eskaintzen die, eta Gizarte Zerbitzuak baldintza berdinetan erabiltzea bermatzen du

Norentzat

- ☞ Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden pertsona guztientzat.

Nola

- ☞ Gizartean parte hartzea sustatzen duten pertsona, familia edo taldeei laguntza ematen dioten profesional-talde baten bidez (Gizarte Lana, Gizarte Hezkuntza, Laguntza Soziosanitarioa...).

Noiz

- ☞ Bizitzako egoera eta esparru ezberdinetan laguntza, arreta, zerbitzu eta baliabideei buruzko informazioa eta aholkularitza behar dutenean.

Non

- ☞ Aranguren Ibarreko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan (Mutiloa plaza z/g), hurrengo telefonoan hitz ordua eskatuz 948 15 13 82.

Alarma-egoeraren hasieratik, Aranguren Ibarreko Udaleko Gizarte Zerbitzuek udaleko funtsezko zerbitzu izanik beren prestazioak mantentzeaz gain, COVID-19K eragindako osasun-krisiaren aurrean eraginkorragoak izateko euren baliabideak indartu eta beharrezko neurriak hartu dituzte koronabirusak pertsona zaurgarrienen kolektiboetan dituen ondorioak arintzeko eta koronabirusak eragindako pertsona eta familia guztiei erantzuna emateko.

Aipamen berezia merezi du etxez etxeko zerbitzuko profesionalak (ELZ) egindako lan handiak. Emakume horiek, berriz ere alarma-egoeraren hasieratik beren profesionaltasuna eta gure adinekoei zerbitzu emateko bokazio handia erakutsi dute.

Era berean, azpimarratu nahi dugu Mutiloako Elikagaien Bankuko boluntarioak, pandemiaren hasieratik Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta eta lankidetzan, biztanlerik ahulenengana iristeko egiten ari diren lana.

Aranguren Ibarreko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako lan-taldeak lanean jarraitzen du krisi honen ondorio sozialei aurre egiteko eta haren eraginak ahalik eta eragin txikiena izan dezan herritarren bizi baldintzetan, bereziki pertsona ahulenengan.

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO, ZURE ALBOAN GAITUZU



MUTILOA PLAZA Z/G – MUTILOA
ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
9:00ETATIK 14:00ETARA
TEL: 948151382

Lan Aurreko Tailerrak

Diruz lagundutako ikastaroak dira (4 €/ordu teorikoa eta 6 €/ordu praktikoa), Aranguren Ibarrean errolatuta eta langabezian dauden pertsonen zuzendutakoak. Halaber, pertsona horiek Aranguren Ibarreko enplegu-poltsan alta emanda eta indarrean egon beharko dira. Lehenetsuna emanen zaie aurreko baldintzak bete eta aurretik Enplegu Planetik antolatutako beste lan-aurreko ikastaro batean parte hartu ez dutenei eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetik lehenetsuneko jotzen diren bestelako kasuei.

OHAR GARRANTZITSUA: Lan aurreko tailerrek eta profesionaltasun ziurtagiriek aurrera egitea edo ez, momentuko osasun egoeraren arabera izango da, eta horien garapenerako momentuko araudia aplikatuko da, beraz aldaketak izan ditzakete.

OINARRIZKO LANAK MINTEGI ETA LORAZAINTZA-ZENTRUETAN



Ikastaro honen bidez, dagozkion probak gainditu ondoren, MINTEGIETAKO, LORATEGIETAKO ETA LOREZAINTZAKO ZENTROETAKO JARDUERA OSAGARRIAK profesionaltasun-ziurtagiriaren MF0520 prestakuntza-modulua lor daiteke.

Lehenetsuna izanen dute mintegietan, lorategietan eta lorazaintzako zentroetako jarduera osagarrietako CP1 delakoari dagozkion moduluren bat egina dutenek.

Oinarrizko baldintzak: gaztelania menderatzea (ahoz, irakurritz eta idatziz).

Datak:

Urriaren 13tik azaroaren 5era.

Ordutegia:

9:15etik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

TEORIA: (90 ordu).

Lekua: Ilundain Fundazioko Intalazioak (Ilundain).

Emaila: Ilundain Fundazioa.

PLAZAK : gehienez 15 pertsona.

ERAKUNDEEN EREMUAN ESKU-HARTZEAK ANTOLATZEKO LAGUNTZA

ARRETA SOZIOSANITARIOA



Aranguren Ibarrean errolaturik dauden pertsonentzako. Langabezian daudenak edo lanean ari direnak. Lehenetsuna izanen dute Erakundeetan Arreta Soziosanitarioko CP2 delakoari dagozkion moduluren bat egina dutenek.

Ikastaro honen bidez, dagozkion probak gainditu ondoren, 2. mailako Gizarte erakundeetan mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa emateko profesionaltasun-ziurtagirirako behar den 1016 prestakuntza-modulua lortzen ahalko da.

Egin nahi dutenek baldintza hauetako bat bete beharko dute:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiria.
- Lanbide-arlo eta familia bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo hezkuntza-administrazioek araututako sarbide-probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoak eta/edo 45 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gaindituta izatea.
- Beharrezko gaitasun giltzarriak izatea.

TEORIA: (100 ordu).

Datak: urriaren 1etik azaroaren 5era.

Ordutegia: 09:15etik 13:30era

Lekua: ADACEN

PLAZAK: gehienez

20 pertsona.

Profesionaltasun Ziurtagiriak

Profesionaltasun-ziurtagiria AGIRI OFIZIAL BAT da, langile bat Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko lanbide-kualifikazio batean egiaztatzen duena.

LAN ADMINISTRAZIOAK EMATEN DU ETA ESTATU OSOAN DU BALIOA.

Profesionaltasun-ziurtagiri bat izateak nabarmen handitzen ditu lan-merkatuan sartzeko aukerak, baita jada prestakuntzaren edo lan-esperientziaren bidez lortutako lanbide-gaitasunak hobetzekoak ere.

ERAIKIN ETA LOKALETAN GAINAZALAK ETA ALTZARIAK GARBITzea

(150 ordu teoriko eta 80 ordu praktikoa)



Aranguren Ibarrean errolatuta dauden pertsonentzat.

Doako prestakuntza. Garraioa diruz lagunduko da.

- 1. mailako ziurtagiri hori eskuratzeko ez da prestakuntza eta lanbide baldintzarik bete behar.
- Ikastaro honekin lortzen diren gaitasun orokorrak eraikin eta lokaletan gainazal eta altzariak garbitu eta mantentzea dira, horretarako teknika, tresna, produktu eta makina egokiak hautatuz.

TEORIA: (150 ordu).

Datak: Azaroaren 2tik Abenduaren 17ra.

Ordutegia: 09:15etik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

Lekua: Haritz Berri Ilundain Fundazioa. Areta Industrialdea Ezpona K/ 10, Uhartea.

PLAZAK: gehienez 12 pertsona.

LAN AURREKO TAILERRAK ETA PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK: ARANGUREN IBARREKO UDALEKO ENPLEGU PLANA



► **IZEN EMATEAK:**
IRAILAK 21 ETA 22

► **NOLA?**
8:00etatik 19:00etara ondorengo telefonoetara deituz: 948 012 012 (doakoa tarifa finkoa duten telefonoentzako) edo 012 (deiazen prezioa 0,34 €)



LUDOTEKAK: (URRIA-EKAINA)

Eskola hasierarekin batera "Txalopote Ludoteka"-k atea berriro zabaltzen die 2009 eta 2017 urteen artean (biak barne) jaiotako Aranguren Ibarreko haur guztiei, beti ere haien aisialdian jolas eta jarduera ezberdinak egin nahi badituzte.

Adinaren arabera jarduera ezberdinak egingo ditugu:

- 4-7 URTE BITARTEKO TALDEA: **Esploratzaile Txikiak.**
- 8-12 URTE BITARTEKO TALDEA: **Aisia eta denbora librearen Kluba.**

LUDOTEKA: IDOI PLAZAKO LOKALAK

ORDUTEGIA:

Astelehena: 17:00etatik 19:00etara INGELESA.
Asteartea: 17:00etatik 19:00etara GAZTELANIA.
Asteazkena: 17:00etatik 19:00etara INGELESA.
Osteguna: 17:00etatik 19:00etara. EUSKARA.
Ostirala: 17:00etatik 19:00etara GAZTELANIA-EUSKARA.

HASIERAKO DATA:

Urriaren 4a, ostirala, 17:00etan.
Bukaera: 2021eko ekainaren 18a.

Kuotak: urteko 25 €

7€ hilabetekoa, izen-emateak plazak egonez gero.

1 € egun solteak, izen-emateak plazak egonez gero.

LUDOTEKA LARUNBATETAN:

(Kultur Etxeko kanpoko gela,
Eguzki plaza, Mutiloa)

ORDUTEGIAK:

Larunbata: 17:00etatik 19:00etara.
Hasiera: Urriak 3 (larunbata).

Kuota: 10 € urteko.
Bukaera: ekainak 19.

Zerbitzua momentuko osasun egoeraren arabera garatuko da eta Osasun Agintariak ezarritako protokoloak eta edukierak beteaz.



LUDOTXIKI (AZAROA-EKAINA)

Ludotxikia Aranguren Ibarrean errolatutako haurrei zuzendutako jolaserako gunea da, 0-3 urte bitartekoentzat. Gune horretara, haurrek beti heldu batekin joan behar dute eta heldu horrek

haurra bere zaintzapean izan beharko du. Ludotxikia Txalopote Ludotekako lokal berean dago (Idoi plazan, Mutiloa). Plazak mugatuak dira. Edukiera mugatua izango da indarrean dagoen araudiaren arabera.

HASIERA: AZAROA 3 (asteartea)

Amaiera: 2021ko ekainak 17.
Egunak: Astearte eta ostegunak.
Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.
Kuota: 10€.

IZEN-EMATEAK:

TXALOPOTE LUDOTEKA, LARUNBATETAKO LUDOTEKA
ETA LUDOTXIKIA, Irailak 28 eta 29.
Telefono hauetara deituz: **948 01 20 12** (doakoa tarifa finkoa dutenentzat) edo **012** (0,34€/ deia), **8:00etatik 19:00etara.**

Plazarik egonez gero, jarduerako lehen egunean izena eman ahalko da. Plaza mugatuak dira eta behar izanez gero, zozketa egingen da.

KUOTA ORDAINKETA: Ludotekara joan eta lehenengo egun horretan ordainduko da gelan bertan.

Zerbitzua momentuko osasun egoeraren arabera garatuko da eta Osasun Agintariak ezarritako protokoloak eta edukierak beteaz

LIBURUEN MAILEGU ZERBITZUA GURASOENTZAT

Gizarte Zerbitzutik zuen seme-alaben eguneroko heziketan laguntzen ahal dizueten zenbait libururen irakurketa aholkatzen dizuegu, gainera erosi beharrik gabe irakurri ahalko dituzue. Horretarako, liburuak maileguan hartzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Liburuak hiru asteko epean hartu daitezke eta luzapenerako aukera dago.

Baten bat erreserbatu nahi baldin baduzu, ondorengo loturan aurkituko duzun mailegu eskaera betez egin ahalko duzu: <http://www.aranguren.es/prestamo-de-libros-para-padres-y-madres/>; edo Gizarte Zerbitzura hurbildu eta bertan eskaera hori bera eman.

Oraingoan hurrengo bi irakurgaiak utzi ahal dizkizugu maileguan:

"Convivir con un adolescente"

Elías Argüello Alonso



Zer egiten dugu haur hori nerabezarora iristen denean? Gure seme-alaben garapenaren etapa berri hau ez da modu berean prestatzen. Liburu honen bidez, autoreak gogorarazi nahi du nerabezarora ez dela erraza, ez gurasoentzat ezta nerabearentzat ere. Zaila da haztea eta haurra zareneko segurtasuna hori uztea. Nerabezarook,

bizitzeko adin ederra izanik ere, beldurrak, itzalak eta zalantzak ere baditu.

«Es útil, fácil de leer, distrae, hace sonreír, asusta un poco, te guía, da ánimos y aporta soluciones. ¡Creo que lo deberían leer todos los padres!»
NERABE BATEN AMAK ESANDAKOA.

¿Mi hijo es tímido?

María Inés Monjas Casares



Lotsatia jaiio edo bizitzan zehar egiten da? Lotsa arazo bat da haurtzarora eta nerabezarora? Lotsa sendatu egiten al da? Arriskurik ba al du? Zer gertatzen zaie eta zer zailtasun dituzte lotsa-arazoak dituzten haur eta gazteek? Zer egin daiteke haiei laguntzeko? Idazlan honek galdera horiei eta baita beste batzuei ere erantzuten die. Gurasoei hurrengo gaietako buruzko orientazioa eta informazioa ematen die: lotsa zer den, haur

edo nerabe lotsatia izateak zer esan nahi duen eta zergatik izan daitekeen haurra lotsati eta horrek beretzat zer ondorio izan ditzakeen uler dezaten. Lotsari aurre hartzeko eta horrek beren seme-alabei ekartzen ahal dizkien arazoak txikitzeko eta gainditzeko baliabideak, estrategiak eta irizpideak ematen ditu.

Maskara eramateko zure gerriko poltsa nahi al duzu?



Aurten, Aranguren Ibarreko Hiri Kanpaldietan parte hartu duten haurrei maskara eramateko gerriko poltsak eman zaizkie, beren musukoa soinean eraman eta behar zen egoera eta jardueretan erabili ahal izateko.

3 eta 12 urte bitartean baduzu eta ezin izan baduzu kanpaldietan parte hartu, hurbildu* zaitez Aranguren Ibarreko Gizarte Zerbitzuetara (Mutiloa plaza z/g – lehen solairua) 9:00etatik 14:00etara eta **ESKATU ZUREA!!**

* (Adintxikikoaren erantzukizuna duen helduren batek jaso beharko luke)

Emakume eta familientzako laguntza juridikorako zerbitzua



Emakume eta familientzako laguntza juridikorako zerbitzuak musutruk ematen du familiarekin zer ikusia duten gaien inguruko informazioa (banantzeak, dibortzioak, izatezko bikoteak, ezkontzaren ondasuneraentzea...), laneko gaiak (amatasun eta aitasun baimenak, edoskitzekoak, eszedentziak eta zaintzarako baimenak, kaleratzeak...), gizarte zerbitzuaren prestazioak (alarguntza-pentsioa, zurtasunekoak...), testamentuaren antolaketak, emakumeenganako indarkeriari buruzko gaiak (denuntziak, urruntze aginduak...). Aranguren Ibarrean errolatuta dauden pertsona guztientzako.

ARRETA ORDUTEGIA:

Ostegunero eskainiko da, 10:00etatik 13:00etara, Aranguren Ibarreko Udaleko bigarren solairuan (Mutiloa plaza z/g).

Informazio gehiago eta hitzorduak hartzeko: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Telefonoa 948 15 13 82.

Beste zerbitzu eta jarduerak

HELDUENTZAKO OINARRIZKO FORMAKUNTZA

Irakurketa edota idazketa finkatu eta kalkulu matematikoko oinarrizko ezagutzak eskuratu behar dituzten pertsonentzat da, eta, oro har, oinarrizko ezagutza-maila lortu nahi duten pertsona heldu guztientzat, beren gizarte eta kultura-ingurunean parte hartu eta bizitzan zehar ikasten jarraitu ahal izateko.

Formakuntza "José M^a Iribarren" Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxe Publikoko irakasleek emango dute.

Lekua: Mutiloako Jubilotekako lokaletan (Osasun Etxeko beheko aldean).

Ordutegia: astelehen eta asteazkenak, 15:30etik 17:30era.

Hasierako data: iraileko bigarren hamabostaldia.



INFORMAZIO GEHIAGORAKO: ARANGUREN IBARREKO UDALEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA (Mutiloa plaza z/g, Mutiloa, Telefonoa: 948 15 13 82)

ATZERRITARRENTZAKO GAZTELANIA

Iruñako "José M^a Iribarren" Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxe Publikoak gaztelaniazko prestakuntzarako doako ikastaroak ematen ditu, ikasleei hizkuntza ulertzeko eta adierazteko baliabideak eskaintzeko.

- ◆ Ikastaroak lau hilabetekoak dira eta irailean hasten dira.
- ◆ Eskolak goizez, bazkalondoren eta arratsaldean ematen dira.
- ◆ Saiok ordu eta erdikoak edo bi ordukoak dira, astean hiru edo lau egunez.
- ◆ Ikasketa maila ezbedinak daude, alfabetizaziotik hasi eta goi mailara arte.

MATRIKULA:

Irailaren 1etik aurrera on-line edo "Jose María Iribarren" Ikastetxe Publikora bertaratuz Bartolomé de Carranza k/ 5, Iruña. Telefonoa: 848 43 04 00.



FORMAZIOA MUTILOAN EGITEKO INTERESA BALDIN BADUZU, JARRI ZAITEZ HARREMANETAN ARANGUREN IBARREKO GIZARTE ZERBITZUAREKIN 948 15 13 82 TELEFONOAN, 9:00ETATIK 14:00ETARA, ASTELEHENETIK OSTIRALERA

ARANGUREN IBARREKO PODOLOGIA ZERBITZUA

Podologia Zerbitzuak oinen zaintza du helburu, beti ere sendaketa ez kirurgikoen bidez eta oinarrizko podologiako ebaketa eta zaintzak erabiliz. Zerbitzua martxan dago dagoeneko eta Aranguren Ibarrean errolaturik dauden 60 urtetik gorako pertsonentzako da.

Etxez etxeko zerbitzua ere eskatu daiteke, beti ere interesa duen pertsonak mendekotasun gogorra, handia edota podologia zerbitzua dagoen gelara mugitzea eragozten dion ezgaitasuna aitortua duela egiaztatzen baldin badu.

Podologiako kontsultategia Erretiratuen San Pedro Elkarteko lehenengo solairuan dago (Mutiloa plaza z/g, Mutiloa). Zerbitzua, ostegun arratsaldetan izanen da, 17:00etatik 20:00etara. Zerbitzuaren prezioa 12 eurokoa da kontsultategian bertan eta 18 eurokoa etxean.



ARRETA AURREKO HITZORDU BIDEZKOA DA. HITZORDUAK ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTEAN (MUTILOA PLAZA Z/G, 1. SOLAIRUA) EMATEN DIRA AURREZ-AURRE ETA BAITA TELEFONO HONETAN ERE: 948 15 1 382

DOAKO AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA



Irailaren 18an, ostiralean, Aranguren Ibarrean errolatuta dauden 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako aholkularitza psikologiko zerbitzua berrabiaraziko dugu.

Zerbitzu honek familiako eta jendarteko harremanak hobetzen laguntzen du eta honako alderdi hauek jorratzeko aholkularitza ematen du: auto-estimua, gaitasun sozialak, estresa eta antsietatea, beldurrak, egoera depresiboak, aldaketei egokitzea, elikadurarekin lotutako nahasdurak, menpekotasunak...



ZERBITZUA ERABILTZeko, ALDEZ AURRETIK HITZORDUA ESKATU BEHAR DA ARANETXEAN (ARANGUREN IBARREKO GAZTEDIAREN ETXEAN), KALE NAGUSIA 2, BIS. TELEFONOA: 948 23 75 58. ZERBITZUA OSTIRALETAN ESKAINIKO DA, 17:30ETIK 19:30ERA.

KONTSUAMOARI BURUZKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Urrian zehar aurreko hilabeteetan eskaini izan dugun kontsumoari buruzko aholkularitzarako doako zerbitzua berrabiaraziko dugu.



Zerbitzu hau Aranguren Ibarreko bizilagunei zuzendua dago baldin eta ondorengo gaietan laguntza eta aholkua behar badute: kontsumoa, telekomunikazioak, hornidurak, erosketa bermeak, zerbitzu eta ondasun salerosketak, ibilgailu, konponketak, turismoa, alokairuak,...

- ◆ Aholkularitza hau Kultur Etxean eskainiko da (Eguzki plazan), hileroko lehenengo astearteetan, 17:30etik 18:30era bitartean



INFORMAZIO GEHIAGO EDO/ETA HITZORDUA ESKATZEKO: OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAN. TEL.: 948 15 13 82

Zerbitzu eta Baliabide Gida

ARANGUREN IBARREKO ETXETZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Aranguren Ibarreko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua izeneko baliabide bat du, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko arazoak dituzten pertsona edota familientzat. Egoera horretan daudenei, etxean bertan zuzeneko arreta eskaintzen die, ohiko ingurunean bizitzen eta integratzen lagunduko dien esku-hartze espezifiko bidez.

ZERBITZUAREN HELBURUEN ARTEAN DAUDE:

- Erabiltzaileen autonomia, ziurtasuna eta harreman sozialak sustatuz, haien bizitza kalitatea hobetzea.
- Euren kabuz garatu ezin dituzten eguneroko jarduerak egiteko laguntza eskaintzea.
- Erabiltzaileak bere ohiko ingurunean jarrai dezan laguntza ematea.

EMATEN DITUEN ZERBITZUAK:

- Arreta pertsonala eta higieena.
- Hezkuntzarako eta prebentziorako laguntza.
- Etxeko lanetan laguntzea.
- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak ematen du zerbitzua.



INFORMAZIO GEHIAGORAKO HARTU HITZ ORDUA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAN (MUTILOA PLAZA Z/G, MUTILOA). TELEFONOA: 948 15 13 82

ZURE INTERESEKOA IZAN DAITEKE....

Mendekotasunaren balorazioa

Mendekotasun mailaren bat izan dezakeen edozein pertsonarentzat da, adin mugarik gabe.



- Mendekotasuna adinagatik, gaixotasunagatik edo ezgaitasunagatik eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste pertsona edo baliabide garrantzitsu batzuen laguntza behar izatea da. Adimen-ezgaitasuna edo buru-eritasuna duten pertsonen kasuan, beren autonomia pertsonalerako beste laguntza batzuk behar izaten dituzte.
- Mendekotasun-ziurtagiria Estatu Espainiar osorako balio duen agiri pertsonala da, eta mendekotasun-maila egiaztatzeko balio du. Horri esker, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonen Zaintzeari buruzko Legean aurreikusitako zerbitzu eta prestazioak eskuratu ditzake titularrak.
- Baremo bat da, honako hauek baloratzeko irizpide objektiboak zehazten dituenak: pertsonen autonomia maila, eguneroko bizitzako oinarrizko lanak egiteko gaitasuna, eta laguntza eta gainbegiratze beharra. 3 urtetik beherakoentzat berariazko balorazio eskala dago.

MENDEKOTASUNAREN BALORAZIOA ESKATU AHAL IZATEKO BALDINTZAK HAUEK DIRA:

- Gaur egun Nafarroan bizitzea eta bost urtetan lurralde espainiarrean. Bost urte horietatik azken biak izan beharko dute eskaeraren aurrekoak.
- Bost urtetik beherako kasuan estatuko egonaldia haien zaintza eta erantzukizuna dutenei eskatuko zaie.

Baliabide hauei buruzko informazio gehiago jasotzeko, Gizarte Zerbitzura deitu dezakezue, 948 15 13 82 telefonora, 9:00etatik 14:00etara.

KONTSUMOARI BURUZKO AHOALKULARITZA ZERBITZUA

Laguntza eta aholkularitza ondorengo eremuetan: kontsumoa, telekomunikazioak, hornidurak, erosketak bermeak, zerbitzu eta ondasun salerosketak, ibilgailu, konponketak, turismoa, alokairuak,...

AHOALKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA

Familiako eta jendarteko harremanak hobetzeko laguntza, auto-estimua, gaitasun sozialak, estresa eta antsietatea, beldurrak, egoera depresiboak, aldaketei egokitzea, elikadurarekin lotutako nahasdurak, menpekotasunak... 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendua.

LUDOTXIKIA

0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako jolasteko gunea. Beti haien erantzukizuna izango duen heldu batez lagunduta egon beharko dute.

TXALOPOTE LUDOTEKA

4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jolasteko gunea, formazioa duten hezitzaileek antolatutako jolas eta jardueren bidez beren aisialdia alaitu nahi badute.

MATERIAL ORTOPROTESIKOA MAILEGATZEKO ZERBITZUA

Denbora batez zenbait material mailegatzeko zerbitzua: aulki gurgildunak, dutxarako aulkiak, makuluak, bastoiak, etab.

LIBURUAK MAILEGUAN HARTZEKO GURASOENTZAKO ZERBITZUA

Seme-alaben eguneroko hezkuntza erraztu edo lagundu dezaketen argitalpenen mailegua.

JANTOKI OSASUNGARRIA

Autonomoak diren edo mendekotasun ertaina duten 60 urtetik gorako pertsonak, beren behar dietetikoaren arabera, modu osasuntsu eta orekatuan jan ahal izateko zerbitzua, eta, aldi berean, konpainian egin dezaketela sustatzeko. Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak menua etxean jasotzeko aukera dute.

JUBILOTEKA

Mendekotasunik ez duten edo mendekotasun ertaina duten 60 urtetik gorako pertsonentzako zerbitzua. Oroimen eta psikomotritate tailerrak eskaintzen ditu, narriadura fisiko eta psikikoari aurrea hartzeko.

PODOLOGIA ZERBITZUA

Podologia Zerbitzuak oinen zaintza du helburu, beti ere sendaketa ez kirurgikoen bidez eta oinarrizko podologiako ebaketa eta zaintzak erabiliz. Aranguren Ibarrean errolaturik dauden 60 urtetik gorako pertsonentzako da. Salbuespeneko egoerarako ere, etxetzeko zerbitzua eskaintzen da.

ELIKAGAIEN BANKUA

Egoera ekonomiko eta sozial kalteberan dauden familiei oinarrizko produktuak banatzeko. Baliabide hori garatzeko, ezinbestekoa da boluntarioen lana, beren denborarekin elikagaiak antolatu, bildu eta banatzen laguntzen baitute.

LAN POLTSA

Langabezian edo/eta lan hobekuntzan dauden erroldatuentzako zerbitzua. Bere eginkizunen artean daude curriculum biltzea eta, ondorioz, lan poltsaren datu-baseman inskribatzea eta enpresek eta partikularrek egiten dituzten lan eskaintzak jasotzea.

ESKAERAREN ARABERAKO TAXIA

Garraio erregularrik ez duten Ibarreko udalerrietako bizilagunak Mutiloako zerbitzuetara eta hiri garraioko lineetara hurbiltzeko garraio zerbitzua.

FAMILIA ETA HAURTZAROA

- Tailer monografikoak, gurasoen topaleku gisa, seme-alabak hezteko lan garrantzitsuari modu sinpleagoan aurre egiteko gogoeta egin eta trebetasunak ikasi ahal izateko. Familiei laguntzeko, haurtzaindagi-zerbitzua dago.
- Haur eta nerabeentzako programak: ikastetxeekin lankidetzan, hainbat programa egiten dira, ohitura osasungarriak sustatzeko eta eskolako eta familiako bizikidetzak egokirako jarrerak sustatzeko.

KANPALDIAK ETA HIRI TAILERRAK

Aranguren Ibarreko gizon eta emakumeen familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzeko eta 4 eta 12 urte bitarteko haurren aisialdirako baliabideak:

- Udako hiri-kanpaldia
- Gabonetako tailerra
- Inauterietako tailerra
- Aste Santuko tailerra

EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA

Behar juridikoengatik eta bereizkeriagatik aholkua eta orientazioa eskatzen duten erroldatuei ematen zaien zerbitzua, bereziki, tratatu txarrak edota sexu-erasoak gertatzen direnean.

IN.TE.RE.SA PLANA (ENPLEGU PLANA)


- Enplegua sustatzeko kontrataziorako diru-laguntzak
- Prestakuntza pertsonal, sozial eta laboralerako diru-laguntzak
- Auto-enplegua sustatzeko diru-laguntzak (2009/12/21eko 156. NAO)

HELDUENTZAKO OINARRIZKO FORMAZIOA

Irakurketa edota idazketa finkatu eta oinarrizko ezagutza-maila lortu behar duten pertsonentzako prestakuntza.

PCR-a egiteko eskatu dizute

KORONABIRUSIK BADAGOEN DETEKTATZEKO
ERABILTZEN DEN PROBA BAT DA



1

Zer egin behar dut emaitzaren zain nagoen bitartean?

COVID-19a daukazun susmoa eragiten duen sintomarik baduzu, bakartuta egon

Hurbileko kontaktua izan baduzu kutsatuta dagoen pertsona batekin (15 minutu baino gehiago egotea, 2 metro baino hurbilago eta babes-neurririk gabe), berrogeialdian egon

Lan-arrazoiengatik, probengatik, ebakuntzengatik... eskatu badizute PCRa egiteko, ohiko bizimodua izan

2

Zer gertatzen da pcr-aren emaitza positiboa bada?

SINTOMARIK BADUZU

Osasun-etxetik deitu eta jarraipena egingo dizute

Sintomak hasi aurretiko 2 egunetan izan dituzun hurbileko kontaktuei buruz galdetuko dizu aztarnarien taldeak



Sintomak desagertu eta 3 egun igaro bitartean bakartuta egoteko esango dizute, baldin eta sintomak hasi zirenetik 10 egun igaro badira

Aldi hori amaitutakoan, ohiko bizimodua eduki ahal izango duzu



Osasun-langilea edo soziosanitarioa bazara, PCR negatiboa beharko duzu berriro lanean hasteko

EZ BADUZU SINTOMARIK



Osasun-etxetik deituko dizute



Aztarnarien taldeak antigorputzen azterketa egiteko eskatuko dizu:

Ig G-a positiboa bada: infekzioa gaindituta dagoela ulertuko da eta ohiko bizimodua eduki ahal izango duzu

Ig G-a negatiboa bada: infekzioa aktibo dagoela ulertuko da eta 10 egunetan bakartuta egoteko esango dizute, zure kontaktuak aztertuko dituzte eta zure kasuaren jarraipena egingo dute osasun-etxetik

3

Zer gertatzen da pcr-aren emaitza negatiboa bada?

SINTOMARIK BADUZU



Emaitza SMSz iritsiko zaizu. Zure osasun-etxetik deituko dizute, prozesuari jarraipena egiteko



Ez duzu bakartuta egon beharko, eta zure egoera klinikoaren arabera bizimodua egin ahal izango duzu



COVID-19a edukitzearen susmoak jarraitzen badu, baliteke PCR proba berriro egitea edo besteren bat

EZ BADUZU SINTOMARIK ETA HURBILEKO KONTAKTUA IZAN BAZARA

Emaitza SMSz emango dizute, 24-36 orduren buruan, edo zurekin harremanetan jarriko dira osasun-etxetik



Berrogeialdian egoteko esango dizute, gerta bailiteke gaixotasuna inkubatzen egotea

Berrogeialdiaren amaieran, beste PCR bat egiteko eskatuko dizute, eta berriro negatiboa bada emaitza, SMSz jakinaraziko dizute eta berrogeialdia amaitu ahal izango duzu

Emaitza iritsi bitartean sintomarik baduzu, jarri harremanetan osasun-etxearekin edo, hartako ordutegitik kanpo, 948 290 290 telefonora deitu

EZ BADUZU SINTOMARIK ETA EZ BAZARA HURBILEKO KONTAKTUA IZAN

Ohiko bizimodua izan dezakezu

ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITZAZU